

## ***LABetik lanean jarraitzen dugu langileok hezkuntza ordezkariarekin komunikazioa bermatzeko***

Irailaren hasieran udako prozesuetan administrazioak egindako akatsek **langileongan izandako ondorio larriak** salatu genituen, eta hara non, hilabetea aurrera joan ahala, egoerak okerrera egin du nabarmen.

Hezkuntza Sailaren **aurreikuspen faltak eta baliabide ezak** lurralde ordezkariak kolapsora eraman ditu. Zuzendaritzekiko, langileekiko eta sindikatuakiko harremanak erabat eten dira, horrek suposatzen duen guztiarekin: bete gabeko ordezkapen gehiago, baimenak tramitatu ezin izan dituzten langileak, irakaslerik gabeko ikasgelak, lanerako aukerarik gabeko ordezkoak...

Nekagarria da ikasturte hasiera bakoitzean erantzunik jasotzen ez duten eskaeren zerrenda egitea. Horregatik, EAEko 3 **lurralde ordezkarietako ordezkariekin bilerak** burutzeko deia egin diegu saileko arduradunei. Langileon beharrak mahai gainean jarri eta horiei erantzuna eman diezaion sailak.

Ordezkaritzek egiturazko antolaketa sendoa behar dute, zuzendaritzen eta langileen beharrei erantzungo dien antolaketa eta baliabideak izateko. Hartara, LABetik langileak eta delegaritzaren arteko baita zuzendaritza-taldeak eta delegaritzaren arteko komunikazio kanal zuzen eta eranginkorrak ahalbidetzea eskatuko diogu hezkuntza sailari. Dauden **beharrak modu publiko eta irekian artatzeko**. Batzuen arduragabekeriak ez ditzan langile guztion baldintzak kaltetu.

***Bilerek emango dutenaren zain, eutsi gogor!***